




## Hipoteka berrien kopurua berriro jaitsi da

**Etxebizitzen gaineko hipotekak**  
Urte bakoitzeko urtarriletik uztaiera




Iturria: INE.

**Aurtengo lehen zazpi hilabeteetan, etxebizitzen gaineko hipoteka berrien kopurua %14,3 murriztu zen, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta.** Hain zuzen ere, uztaiera arte 11.800 hipoteka baino gehiago eratu ziren Euskadin, aurreko aldian baino ia 2.000 gutxiago. Interes tasen gorakadak eragin du jaitsiera hori.

## Azalera handietako salmentak %1,7 handitu ziren

**Azalera handietako salmentak**  
Urte bakoitzeko abuztua: Indizea




Iturria: Eustat.

**Abuztuan, azalera handietako eta elikadura kate handietako salmentak %1,7 handitu ziren, iazko abuztuaren aldean.** Igoera elikagaien salmentan kontzentratu zen. Era berean, sektorean enplegua sortzen jarraitzen da erritmo nabarmenean, %3,4ko hazkundera lortuta.



## Txikizkako merkataritzak %6,3 igo zituen salmentak

Txikizkako merkataritza Euskadin  
Urte bakoitzeko abuztua. Indizea




Iturria: INE.

INEk argitaratutako informazioaren arabera, **EAEko txikizkako merkataritzaren salmentak %6,3 hazi ziren abuztuan, urte arteko tasan.** Halaber, salmenten hazkunde horrekin batera, enpleguak %1,4ko gorakada izan zuen. Bi kasuetan, tasak aurreko hilabeteetakoak baino zertxobait hobek dira.

## Estatuko KPIa %3,5ean kokatu zen irailean

Estatuko KPIa  
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: INE.

**Irailean, KPIaren adierazle aurreratua %3,5era igo zen, abuztuan baino bederatzi hamarren gehiago.** Bilakaera horren arrazoi nagusia elektrizitatearen prezioen igoera da, eta, neurri txikiagoan, erregaien prezioetan izandako garestitzea.